

Kooperatiben gorazarrea Europan

Deia, 1983-07-14.

Badirudi Euskal Herriak izango duela Europan sartzerakoan, gutxienez honen pareko den zerbait: gure kooperatibismoaren esperientzia.

Orain arte Komunitatean eman den pausoa ona izan baita.

Apirilean izan dute kooperatibaz lehen debatea Europako Parlamentuan, eta ondorena ezin hobea izan: Kooperatibismoa komunitate honetako "indar ekonomiko eta sozial" bezala aipatua izan da. honelaxe adierazi du ekaineko *Euroforum* hilabetekariak. Eta egin den gorazarreak puntu horiek azpimarratu ditu: 1) Azken urte horietan, langileek eraturako kooperatibak lanpostu berriak sortzeko eragina sortu eta ixteko kinkan zeuden beste enpresa batzu aurrera ateratzeko kemena erakutsi dute. 2) Karl Heinz Mihr, sozialista, izan da gai honetaz txostena egin eta Parlamentuaren aurrean aurkeztu duena; honen ustez, enpresa publikoen eta pribatuen arteko aukera ekonomikoa eskeintzen du lankidegoko bide honek; eta ez da ekonomi sail baten alor bezala nabarmendu den zerbait bakarrik, ekonomiko sistema arrazonagarri bat bezela ere kontuan hartzekoa da.

Komunitateak ez du industria pribatuan bakarrik pentsatu behar, esan du parlamentariak, kooperatibak ere kontuan hartu behar dira.

Richard Burke, Komisariak, zera erantsi dio honi: Komunitateak gero eta laguntza gehiago emango diela kooperatibei, erakutsi bai dute, batetik, beste enpresa moduak lanpostuak galtzen joan diren garai berean, lanpostu berriak sortzeko kemen hori, eta, bestetik ohar arazi nahi izan die entzuleei, hala ere langileen kooperatiba moeta hau berez ez dela langabeziaren gaitza sendatzeko bide miragarri bat. Sistema honek egin dezakeena zera da, esan du, lankidegoaren bidez lekuz-lekuko konfidantza handiagoa sortu, batez ere langabeziak era egitura aldaketak gogor jo dituen lurraldeetan.

Eztabaidatu zen, Kooperatibei emateko gai izango liratekeen bidez.

Karl Heinz Mihr-en txostena orokorrean onartua izan zen arren, egin zituen proposamenak ez ziren baitetsiak izan: Bat, Kooperatiben aldeko fondo bat irekitzea; bi, kooperatiben aldeko legeria berri bai sortzea, eta hiru, kooperatiben Komunitatearen instituzioen arteko bulegoa zabaltzea.

Nahiko sozialista eta burokrazia sortzaile izan daitekeen bide horien orde, kooperatiben sorkerari eragingo dieten neurriak hartzea erabaki zen, batez ere langileen artean berez sorturikoei laguntzea. Kooperatiba horiei Komunitatearen laguntza materiala eta teknikoa hurbiltzeko bideak eskainiko zaizkie; baina hala ere, enpresa pribatu txiki eta erdikoei baino laguntza pribilegiatuagorik eskeini gabe.